

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuaren alde ona gizarteko arlo gehienetara zuzendua dagoela da, izan ere nori ez zaizkio noiz edo noiz giltzak galdu? Beti ere kontuan izan beharra dago giltzak adin batetik aurrera ibiltzen hasten garela, izan ere 6 edo 7 urteko ume bati ezin zaio etxeko giltzen kontrola eman galtzeko edo puskatzeko aukera altua da eta.



Horregatik gutxienez 10 urtetik aurrera erabiltzen hastea gomendatzen da gaztetxoek euren gauzak gorde eta zaintzeko heldutasun puntu bat dutela suposatzen da eta. Adin honetatik aurrera edonork erabili dezake eta arrisku nagusirik ez duenez gizartearen totalitatearen esku geratzen den produktu bat da. Bestalde garbi dago arazoa ez dela bezero partikularretara bakarrik luzatzen, izan ere enpresa eta lantegi handietan makinaren edota geletako ateen giltza guzti horiek galtzea ez litzateke batere harritzekoa izango. Horregatik enpresak, lantegiak edota ikastetxeak bezalako erakundeei ere zuzenduta egongo litzateke produktua hauen beharrak ere berdintsuak dira eta.